



BERROBIKO UDALA

DEIALDIA

BAKE EPAILEA IZENDATZEKO DEIALDIA

Berrobiko Udalak jakitera ematen du Botere Judizialeko Lege Organikoaren 99tik 103 artikuluetara eta 1995eko ekainaren 7ko 3/95 Bake Epaielen Araudian ezarritakoaren arabera, udalbatzarrari dagokiola udalbarri honetako bake-epaile titularra eta ordezkoa izendatzea.

Instantziak Berrobiko Udalaren erregistroan aurkeztuko dira, deialdiaren iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunaren biharamunetik kontaktzen hasi eta hogeitun egun naturaletako epean.

Izangaiek adierazi beharko dute betetzen dituztela eskatutako baldintzak, instantziak aurkezteko epea bukatzen den egunean; era berean, instantzian alegatutakoa egiaztagirien bidez frogatuko dute eta ezgaitasunik edo bateraezintasunik ez dutela egiaztatuko dute.

Era berean, izangaiek memoria txiki bat egin eta erantsiko dute, beren hautagaitzaren egokitasuna eta balorazioa egiterakoan kontuan har daitezkeen aldagaiak adieraziz.

Behin eskaerak aurkezteko epea amaituta, udalbatzarrak aukeratuko ditu bake epaile titularra eta ordezkoa, eskaera aurkeztu dutenen artean. Erabakia udalbatzarkideen gehiengo absolutuaren aldeko botoarekin hartu beharko da, betiere hautagaiek ezarritako legezko betebeharrak betetzen badituzte. Eskaerarik ez balego, udalbatzarrak modu askean aukeratuko ditu prozedura bera aplikatuz, eta Organo Jurisdikzional eskudunari jakinaraziko dio erabakia.

Udaleko idazkaritzan espedienteaz aztertu daiteke eta informazioa jaso.

ERANSKINA

1. Bake Epaile izateko betebeharrak.

- Estatu espainiarrekoa eta adinez nagusia izatea.
- Eginkizun judizialerako ezgaitua ez izatea, ez fisikoki, ez psikikoki ere.
- Eskubide zibil guztien jabe izatea.
- Maltzurkeriazko delituagatik kondenatuta ez egotea, errehabilitazioa lortzen ez den bitartean.
- Maltzurkeriazko delituagatik auzipetuta edo inkulpatuta ez egotea, absoluzioa edo largespena lortzen ez den bitartean.

2. Gaitasun eta bateragarritasun baldintzak.

- Ez da inolako titulazio berezirik eskatzen, bake-epailearen betebeharrak eta eginkizunak betetzeko adina gaitasun baizik.
- Jarduera profesional edo merkataritzakoak egiteko bateragarritasuna dute, betiere inolako motako aholkularitza juridikorik ekartzen ez badute, eta, jarduera horren berezko izaerak ez badu eragozten alderdikierarik gabe eta modu independentean jokatzera edo bere betebeharrak judizialak zuzen betetzea.
- Ezingo dira alderdi politiko edo sindikatuetako kide izan edo horien konturako lanik egin; ezin izango dute udal-hauteskunde edo legislatiboetan parte hartu; eta ezin izango dute botere judizialeko kide gisa bilera edo ekitaldi publikoetan parte hartu, bilera edo ekitaldi horrek ez badu izaera judiziala.

3. Eskubide eta betebeharren inguruan.

- Udalerrian bizi beharko dute, Justiziako Epaitegi Gorenak arrazoi sendoengatik beste herri batean bizitzea baimentzen duen kasuan izan ezik.
- Epaileak finkatuko ditu entzunaldiak.
- Bere aginteak irauten duen bitartean, kenezina izango dira.
- Bere karguagatik ezagutzen dituen ekintzak edo berriak isilpean gordetzera behartuta daude.
- Legez dagozkien prozesuen ordenamendu zibila eta penala ezagutuko dute.
- Erregistro Zibileko eginkizunak beteko dituzte eta legeak ezartzen dizkien beste batzuk.
- Epaile kargua lau urterako da.
- Legez ezarritako sistema eta kopuruekin ordainduko zaie.

— Bere eginkizunak burutzerakoan delituak eta falta edo kalte eta galerak maltzurkeriaz edo erruaz egiten badituzte, erantzukizun zibil edo penalaren pean egongo dira.

— Legean aurreikusitako lizentzia eta baimenak izango dituzte, bere karguaren izaeragatik eta profesionaltasun ezagatik eratorritakoetan izan ezik.

Berrobi, 2026ko martxoak 24a



IDAZKARIA

A blue ink signature scribble consisting of several overlapping loops and lines, positioned to the right of the stamp.